

KARTEL

XI. GN. URTEA, 1961

AZILLA-LOTAZILLA

(LARREA-ZORNOTZA)

Depósito Legal: BI 79-1958.—GRAFICAS BILBAO

ILDAKOAK

Orriak, zorabio baldanez, beera doaz. Udazkena da, urtearen azken aroa. Begira zelai, bide-ertz, sakosta ta abar, osoan orri jausiz ganezka. Orralaxe, apurka apurka, zugatz guztiak orri bariak geratzen dira.

Begira zerura be; edo emen inguru-ko mendi ganetara, Anboto, Mugarra, Oiz, Bizkargi, Lemoatx... Udabarri ta uda bitartean, geienez beintzat, argi ta sotil agiri yakuzan; gaur, illun, odoi ta laiño baltzez estalduta leza baten agoa lez.

Urtearo azken onek eriotza dausku gogoratzan. Gu be, lora ta zugatz-orci antzera, beera goiaz, bizitz-aldapa beera. Au da andia! Gazteak il daitekez, eta asko ilten dira; baiña zarrak nai-taez il bear. Gure zoria.

Bizkor gabiltz bizitzan, ibar bedartsu zein dabilen erreka antzera. Bein al-datz-beera artu ezkerro, zartzaroko laiñoak igarri barik yatorkuz; udazken-aizeak joten gaitu ta len geunkazan emes eder guztietatik bilosturik, barrén-muxin eta negar-jario izten dau gizona. Zerbait garealakoan bizi gara, ta or beingoan gu ta gure gauza guztiak ezerezaren lezara.

Nun deguz lengo lagunak? Len eurekaz kale-artzera joaten giñan, edo ibillaldi bat egitera; orain bakarrik. Ez dot arein irribarre eztien poztasunik; joanak dira, joanak nire eskola-lagunak, joanak nire poz-lagunak, joanak nire bear-lagunak; eriotzak eroan ditu betikotasunera. Neure etxearen be ez ete daukat utsuneron bat? Aita bear bida, edo amia, edo...

Or kanposantua. Ortxe daukaguz arein gorputz-ondarrak, larpean. Lorak ipiñi oī doguz euren obi ganetan. Gauza ona, biotz-samurtasunaren ezau-garri da-ta. Baiña lorok ez daukie indarrik, ez dabe ezer esan nai, otoi tzaren laguntza barik. Betoz lorak otoi tzaren lurrunez usainduta.

Dakigunez. Jaungoikoaren grazian bai, baiña ondiño pekatu arin guztiak parkatu barik, edo ordaindu bako bes-te zorren bategaz ilten dana, orban ta zor guztiak Garbiterrian ondo kitutu arte, ezin daiteke zeruan sartu.

Alan be, bizi gareanok eta il diranak, sendi edo pamili bat dagigu, ta bizi gareanok ildakoen zorrak ordaindu daikeguz. Zelan? Otoitz eta egite onen bitartez.

Geure guraso, anai-arreba, senide ta lagun orreik ez daiguzan aztu, batez be il onetan.